

2021 EKITALDIKO AURREKONTU-PROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA

DESKRIBAPENA

Txosten honen helburua EUDELen 2021eko ekitaldiko aurrekontua aztertzea da. Horretarako, nabarmendu behar da, aurrekontu hau egiteko, autonomia-erkidegoko toki-erakundeei aplikatzekoa zaien aurrekontu-egitura aintzat hartu dela.

Txosten honetan, lehenik eta behin, atal bakoitzeko diru-sarreraren eta gastuen analisi ekonomikoa egiten da, eta, jarraian, programen arabera gastuen analisia garatzen da.

EUDELen 2021eko ekitaldirako diru-sarrera eta gastuen aurrekontu orekatua 2.991.680,36 eurokoa da, hau da, aurreko ekitaldiko aurrekontuaren hasierako aurreikuspenak baino ehuneko 7,42 gehiago.

Lotura juridikoa, gastuen sailkapen ekonomikoa, atal-mailakoa da; eta gastuen programakako sailkapenean, bestalde, gastu-arloaren mailakoa.

Txosten honi diru-sarreraren eta gastuen aurrekontuaren egoerak erantsi zaizkio. Alderaketa egiteko, 2020ko maiatzaren 14ko Batzorde Eragilean onartutako aurrekontu aldatuaren 2020ko hasierako aurreikuspenei buruzko datuak sartu dira.

SARREREN AURREKONTUAREN ANALISIA

2021eko ekitaldirako sarreraren aurrekontu orekatua 2.991.680,36 eurokoa da. Aurreko ekitaldiko aurrekontuaren hasierako aurreikuspenekin alderatuz gero, aurrekontua ehuneko 7,42 gehitu da.

Hona hemen 2021eko ekitaldiko sarreraren aurrekontuaren banakapena eta 2020ko aurrekontuekin egindako alderaketa:

Zenbatekoak eurotan daude

		HASIERAKO AURREKONTU- KREDITUAK, 2020	HASIERAKO AURREKONTU- KREDITUAK, 2021	ALDAKETA %	2021ko aurrekontuaren %
GUZTIRA 3. KAPITULUA	Tasak eta beste sarrera batzuk	17.236,00	12.100,00	-% 29,80	% 0,40
GUZTIRA 4. KAPITULUA	Transf. Arruntak	2.711.675,92	2.923.513,48	% 7,81	% 97,72
	Zerga itunduen partaidetza	2.008.886,96	2.335.771,47	% 16,27	% 78,08
	Bazkideen kuotak	289.988,96	291.792,01	% 0,62	% 9,75
	Gobernantza proiekturako ekarpenak	20.000,00	18.150,00	-% 9,25	% 0,61
	Dirulaguntzen sarrerak	377.800,00	277.800,00	-% 26,47	% 9,29
	Europako Kontseiluarenak	15.000,00	0,00	-% 100,00	% 0,00
GUZTIRA 5. KAPITULUA	Ondare arloko sarrerak	56.071,88	56.066,88	-% 0,01	% 1,87
SARRERAK, GUZTIRA		2.784.983,80	2.991.680,36	% 7,42	% 100,00

Honako hauek dira 2021eko ekitaldiko sarreraren aurrekontuaren alderdirik nabarmenenak:

3. kapitulua. Tasak eta beste sarrera batzuk

Kapitulu honetan, EUDELek HAEEREkin batera antolatzen duen Tokiko Zuzenbideari buruzko Euskal Mintegiko inskripzioen ondoriozko sarrerak hartzen dira kontuan. Aurreikusitako gastuaren ehuneko 40ko ekarpena EUDELek egingo duela aurreikusten da, aurreko ekitaldietan aurreikusitako ehuneko 20ko ekarpenaren aldean. Ekarpeneren gehikuntza hori mintegia online modalitatean irakasten bada aurreikus daitekeen gastuen gehikuntzaren ondorio da.

Era berean, kapitulu honetan 2.500 euroko beste sarrera batzuk ere aurreikusten dira.

4. kapitulua. Transferentzia arruntak.

Sarreraren kapitulu garrantzitsuena da, sarrera guztien ehuneko 97,7 baita. Transferentzia arruntaren ondoriozko sarreretarako aurreikuspena ehuneko 7,8 gehitu da 2020ko ekitaldiko hasierako aurrekontuen aldean; ondorioz, 2021eko ekitaldirako 2.923.513,48 euroko sarreraren zenbatekoa aurreikusten da.

Nabarmendu behar da udalak finantzatzeko foru-funtsen ehuneko 0,15etik datozen sarrerak ehuneko 16,27 handitu direla aurreko ekitaldiko hasierako aurrekontuen aldean. 2021erako diru-sarrera aurreikuspenetan, erreferentzia gisa hartu dira 2020ko urrian Finantzen Lurralde Batzordeetan onartutako 2021eko ekitaldirako aurreikusitako konturako entregak. Udalkutxaren kasuan, gastu gisa aurreikusi da 2020rako aurrelikidazio negatiboaren itzultzea, otsaileko likidazioaren arabera, eta diru-sarrera handiagotzat hartu da 2019ko ekitaldiko likidazio positiboa.

Ondorengo taulan, zerga itunduen partaidetzari dagozkion datuak ageri dira, lurraldearen arabera:

Zenbatekoak eurotan daude

			HASIERAKO AURREIKUSPENAK, 2020	HASIERAKO AURREIKUSPENAK, 2021	2020-2021 arteko aldea (%)
416		Foru-aldundiak eta beste foru- erakunde batzuk	2.008.886,96 €	2.335.771,47 €	% 16,27
	41601	Araba. Zerga itunduen partaidetza	265.650,61 €	305.735,18 €	% 15,09
	41602	Bizkaia. Zerga itunduen partaidetza	1.082.270,47 €	1.283.129,71 €	% 18,56
	41603	Gipuzkoa. Zerga itunduen partaidetza	660.965,88 €	746.906,58 €	% 13,00

Udal bazkideen kuota hazterik ez da aurreikusten 2021erako.

Udalak finantzatzeko foru-funtsen partaidetza da baliabide nagusia EUDEL-en aurrekontuetan, sarrera guztien ehuneko 78,08 baita. Bestalde, elkartearen kideen kuotak sarrera guztien ehuneko 9,75 dira.

Gainera, kapitulu honetan Gobernantza proiektuan parte hartuko duten udalen ekarpenak ere hartzen dira kontuan; kontu-sail horren diru-sarrera 18.150 eurokoa izango da.

Transferentzia arrunten kapituluan ere hitzarmenen eta dirulaguntza izendunen bidez Eusko Jaurlaritzako zenbait sailetatik eta Emakundetik jasotzea aurreikusten diren sarrerak biltzen dira, eta sarrera guztien ehuneko 9,29 osatzen dute:

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailetik udaletan euskararen erabilpena sustatzeko planak taxutu eta garatzeko: 28.000 euro.
- Emakundetik, Berdinsarea sarerako eta Berdinbidean programarako, 84.800 euro aurreikusten dira.
- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailetik, etorkinentzako itzulpen-zerbitzurako, lehengo zenbatekoa mantenduko da: 55.000 euro.
- Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak Sailetik, Tokiko Berrikuntza Agendarako, 110.000 euro aurreikusten dira.

5. kapitulua. Ondare arloko sarrerak.

Ondare arloko sarreren aurreikuspena 56.066,88 eurokoa da, eta Bilboko Colon de Larreategui kaleko 35. zenbakian dagoen EUDELen jabetzako ondasun higiezinaren alokairu-kontratuari dagokio.

GASTUEN AURREKONTUAREN ANALISIA

2021eko ekitaldiko gastuen aurrekontua 2.991.680,36 eurokoa da; hau da, aurreko ekitaldiko aurrekontuarekin alderatuz gero, ehuneko 7,42 gehitu da.

Hona hemen 2021eko ekitaldiko gastuen aurrekontuaren banakapen ekonomikoa eta 2020ko aurrekontuaren hasierako aurreikuspenetikiko alderaketa:

Zenbatekoak eurotan daude

		HASIERAKO AURREKONTU- KREDITUAK, 2020	HASIERAKO AURREKONTU- KREDITUAK, 2021	ALDAKETA %	2021ko aurrekontuaren %
GUZTIRA 1. KAPITULUA	Pertsonal- gastuak	1.446.005,06	1.482.616,30	% 2,53	% 49,56
GUZTIRA 2. KAPITULUA	Ond. arrunten eta zerb. erosketa	778.102,40	939.969,26	% 20,80	% 31,42
GUZTIRA 3. KAPITULUA	Gastu finantzarioak	15.691,61	14.177,34	-% 9,65	% 0,47
GUZTIRA 4. KAPITULUA	Transferentzia arruntak	11.284,00	110.253,20	% 877,08	% 3,69
GUZTIRA 6. KAPITULUA	Inbertsio errealak	141.228,03	50.000,00	-% 64,60	% 1,67
GUZTIRA 9. KAPITULUA	Pasibo finantzarioak	392.672,71	394.664,26	% 0,51	% 13,19
GASTUAK, GUZTIRA		2.784.983,80	2.991.680,36	% 7,42	%100,00

1. kapitulua. Pertsonal-gastuak.

2021eko ekitaldirako 1. kapitulan aurreikusitako kopurua 1.482.616,30 eurokoa da, gastu guztien ehuneko 49,56 eta aurreko ekitaldian aurreikusitako kopuruarekin alderatuz gero ehuneko 2,53ko hazkundera izan du.

Ez da aurreikusten ordainsari-igoerarik; hortaz, aurreko ekitaldiarekiko hazkundera langileen hirurteko berrien epemugaren eta beste partida batzuen igoeraren ondorio da, besteak beste, gizarte-segurantzak, formakuntza, Elkarlaketaren kuotak edo bizi-aseguruak.

2. kapitulua. Gastu arruntak eta zerbitzuenak.

2. kapitulua gastu guztien ehuneko 31,42 da, ehuneko 20,8ko gehikuntza izan du aurreko ekitaldiko hasierako aurreikuspenen aldean.

Kapitulu honetan hau azpimarratu daiteke:

- 2021erako aurreikusitako 231.479,41 euroko azterlan eta lan teknikoen partida hainbat azterlan eta txosten egiteko, elkartearen urteko kontuen auditoretza egiteko, eta Arabako Lurraldeko udalentsako izapideen eskuliburua eguneratzeko erabiliko da.
- publizitaterako eta komunikaziorako aurreikusitako 48.312 euroko partidak; horien artean nabarmentzekoak dira prentsa-zerbitzuak (22.312 euro), Udala aldizkaria (12.500 euro) eta webgunearen mantentze-lanak (9.500 euro), eta proiektu eta programetarako aurreikusitako zenbatekoak (361.150 euro). Hurrengo atalean zehatzago azalduko dira.

3. kapitulua. Gastu finantzarioak.

Kapitulu honek 14.177,34 euro ditu, eta aurreko ekitaldietan Colon de Larreategui eta Ercilla kaleetan erositako higiezinaren hipoteka-maileguren interesengatik dauden gastuei dagozkien. Kapitulu hau ehuneko 9,7 murriztu da 2020ko hasierako aurreikuspenekin alderatuz gero.

4. kapitulua. Transferentzia arruntak.

Transferentzia arruntaren kapitulua 110.253,20 euro da.

Kapitulu hau nabarmen handitu da 2020ko ekitaldiko aurrelikidazio negatiboa ordainketa bakartzat hartzen delako, 87.919,20 eurokoa, eta gai hori, beste batzuetan, diru-sarrera txikiagotzat hartu izan da kontzeptu horrengatik.

Euskaltzaindiarekin egindako toponimia-hitzarmenari dagokion gastua jasotzen da; horretarako, zuzkidura 15.000 eurora izanik, 7.067 euro daude EUDEL-FEMP lankidetzak akordiorako eta Euskalitekin lankidetzan aritzeko kuota ere kontuan izan da, 267 eurokoa.

6. kapitulua. Inbertsio errealak.

Kapitulu honetan inbertsio materialak eta immaterialak daude, guztira 50.000 euro.

Inbertsio materialak 30.000 eurokoak dira. Honako zenbateko hauek aurreikusi dira: altzariak eta tresnak (11.000 euro), informazioa prozesatzeko ekipoa (10.000 euro) eta eraikinetarako inbertsioa (9.000 euro). Azken zenbateko horretan aurreikusten da komunitate bereko zenbait bizilaguni balizko kalte-ordainak ematea, 2019an Elkartearen egoitza berrian egindako lanengatik. Inbertsio immaterialak 20.000 eurokoak dira, eta Elkartearen barne-antolakuntzarako kudeaketa-sistema bat garatzeko programa informatikoan egindako inbertsioari dagozkio.

9. kapituluak. Pasibo finantzarioak.

9. kapituluari dagokion zenbatekoa 394.664,26 eurokoa da, eta, aurreko ekitaldiko aurrekontuarekin alderatuz gero, ehuneko 0,51ko hazkundera izan du.

GASTUEN AURREKONTUAREN ANALISIA, PROGRAMAREN ARABERA

2021eko gastuen aurrekontuaren banakapena hau da, programen arabera:

Zenbatekoak eurotan daude

	HASIERAKO AURREKONTU- KREDITUAK, 2020	HASIERAKO AURREKONTU- KREDITUAK, 2021	Aldea (%)
ADMINISTRATIO OROKORRA	2.451.533,80	2.615.530,36	% 6,69
PRESTAKUNTZA	33.700,00	33.700,00	% 0,00
GIZARTE ZERBITZUAK	50.000,00	50.000,00	% 0,00
BERDINTASUNA	102.800,00	102.800,00	% 0,00
EUSKARA	36.950,00	47.500,00	% 28,55
UDALERRI TXIKIAK	20.000,00	14.000,00	-% 30,00
BERRIKUNTZA	55.000,00	110.000,00	% 100,00
EUROPAKO PROIEKTUAK (GOBERNANTZA)	35.000,00	18.150,00	-% 48,14
GUZTIRA	2.784.983,80	2.991.680,36	% 7,42

Programa horietatik, ondorengoa da nabarmentzekoa:

Administrazio Orokorreko programan sartzen dira Elkarteari orokorrean dagozkion jardueren ondoriozko gastuak. Gastu-bolumen handiena duen programa da, 2.615.530,36 euroekin.

Pertsonal-gastuen garrantzia aipatu beharra dago (I. kapituluak: 1.482.616,3 euro), eta hipoteka-maileguen karga finantzarioa ere bai (III. eta IX. kapituluak: 408.841,60 euro).

EUDEL-en 2020an barneko euskara plana diseinatzen ari den gausatzea aurreikusten da (5.000 euro). Era berean, Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioarekin dagoen lankidetzaren itunari dagokion ekarpena aurreikusten da.

Gastu arruntak eta inbertsio errealak ere programa honetan hartu dira kontuan.

Prestakuntza programan 33.700 euroko aurrekontu-zuzkidura aurreikusi da. Aurrekontu-zuzkiduratik 16.000 euro Toki Zuzenbideko Euskal Mintegirako erabiliko dira, 10.050 euro pertsonal politikoaren eta zuzendaritzakoaren prestakuntzarako eta 7.650 euro buruzagitzan trebatzeko.

Gizarte zerbitzuen programan, Eusko Jaurlaritzak finantzaturiko etorkinentzako itzulpen-zerbitzuak jarrai dezan, aurreko ekitaldiko 50.000 euroko zenbatekoa mantendu da, zerbitzua bermatuko duen enpresa kontratatzeko, pertsonal-gastuez gain, hau da, aurreikusitako gastuaren ehuneko 10.

Berdintasun-programan Berdinsarea izeneko sarea (52.400 euro) eta Berdinbidean programa (50.400 euro) izango dira ekitaldi honetan ere lanaren ardatzak. Osoko zuzkidura 102.800 eurokoa da, eta EUDELe 18.000 jarriko ditu, arlo teknikoko pertsonalaren gastuez gain, eta Emakundek 84.800 euro.

Euskara-programan 2021erako 47.500 euroko gastua aurreikusi da, eta horietatik 28.000 euro udaletan euskararen erabilera sustatzeko ekintza-planak taxutu eta garatzeko Eusko Jaurlaritzarekin eginiko hitzarmena betetzeko dira; 15.000 euro, Euskaltzaindiarekin eginiko toponimia-arloko hitzarmenean hartutako betebeharrak gauzatzeko; eta 4.500 euro, programako gastu osagarrietarako.

Udalerri txikien programan udalentsat interesgarriak diren araudi-aldaketei eta dirulaguntzei buruzko datu-basearen zerbitzua mantendu da (Infoudala). 14.000 euroko zuzkidura aurreikusi da, eta EUDELen baliabide propioekin finantzatuko da guztiz.

Berrikuntza-programan, Eusko Jaurlaritzak finantzatutako Tokiko Berrikuntzaren Agendaren proiektuarekin jarraitzea aurreikusten da. 110.000 euroko gastu-zuzkidura aurreikusten da, bai eta proiektura bideratutako langile-gastuak ere.

Europako proiektuei lotutako programak 18.150 euro izango ditu. Zenbateko hori osorik bideratuko da ELoGEren proiektura (gobernantza onaren arloko bikaintasuna), eta parte hartzen duten udalek egingo dituzten ekarpenekin finantzatuko da.

ONDORIOAK

2021eko ekitaldiko gastuen eta sarreraren aurrekontua orekatuta dago, eta 2.991.680,36 eurokoa da; hau da, aurreko ekitaldiko hasierako aurreikuspenaren aldean ehuneko 7,42 gehitu da.

Sarrerei dagokienez:

- 2020rako aurrekontu aldatuaren hasierako aurreikuspenen aldean, ehuneko 16,3 handitu da Udal Finantzaketarako Foru Funtzen ehuneko 0,15eko parte-hartzeari dagokion aurrekontu-zuzkidura; alegia, 326.884,51 euroko diru-sarrera handiagoa kontzeptu horrengatik, 2020ko hasierako aurreikuspenen aldean.
- Ez dira aurreikusten ETELen helburuak bultzatzeko Eusko Jaurlaritzaren 100.000 euroko diru-sarrerak, ez eta Gobernantza proiekturako Europar Kontseiluaren 15.000 euroak ere. Diru-sarrera horiek bazeuden aurreikusita 2020ko ekitaldiko aurrekontuan.
- Bazkide diren udalen kuotak mantenduko dira, eta Colón de Larreategi kaleko 35. zenbakian dagoen higiezinaren alokairuarengatik diru-sarrera jasotzen jarraitzea aurreikusten da.
- Tokiko Zuzenbideari buruzko Euskadiko Mintegiari dagokionez, gauzapenean matrikulen kobrantzarekin finantzatu ohi den programa bat izan arren, aurreikusitako gastuaren ehuneko 40ko ekarpena EUDELeke egingo duela aurreikusten da, aurreko ekitaldietan aurreikusitako ehuneko 20ko ekarpenaren aldean. Ekarpeneren gehikuntza hori mintegia online modalitatean irakasten bada aurreikus daitekeen gastuen gehikuntzaren ondorio da.
- Tokiko Zuzenbideari buruzko Euskadiko Mintegiari dagokionez, gauzapenean matrikulen kobrantzarekin finantzatu ohi den programa bat izan arren, aurreikusitako gastuaren ehuneko 40ko ekarpena EUDELeke egingo duela aurreikusten da, aurreko ekitaldietan aurreikusitako ehuneko 20ko ekarpenaren aldean. Ekarpeneren gehikuntza hori mintegia online modalitatean irakasten bada aurreikus daitekeen gastuen gehikuntzaren ondorio da.
- ELoGE proiektuarekin (gobernantza onaren arloko bikaintasuna) jarraitzea bideratutako diru-sarrerak aurreikusten dira, eta parte hartzen duten udalen 18.150 euroko ekarpenekin gauzatuko dira.

Gastuei dagokienez:

Gastu-aurrekontuaren ehuneko 63,3 hauen artean banatzen da: langile-gastua (ehuneko 49,6) eta hipoteka-maileguak (ehuneko 13,67).

Ondasunen eta zerbitzuen erosketaren atalean (ehuneko 31,4), gastu arruntaz gain, honako hauek nabarmendu ditzakegu:

- azterlan eta lan teknikoaren partida (231.479,41 euro), azterlanak eta txostenak egiteko, publizitaterako eta komunikaziorako aurreikusitako 48.312 euroko partidak; horien artean nabarmentzekoak dira prentsa-zerbitzuak (22.312 euro), Udala aldizkaria (12.500 euro) eta webgunearen mantentze-lanak (9.500 euro), eta proiektu eta programetarako aurreikusitako zenbatekoak (361.150 euro).

Inbertsio errealei dagokienez, ehuneko 64,6ko jaitsiera aurreikusten da aurreko ekitaldiaren aldean, dagoeneko likidatu direlako 2019ko ekitaldian EUDELen egoitzako komunitateak egindako lanengatik ordainketak (gai hori 2020ko

ekitaldiko aurrekontuan aurreikusita zegoen). Inbertsio hauek aurreikusten dira: ordenagailuak eta zerbitzari berri bat (20.000 euro), barne-antolakuntzarako kudeaketa-sistema bat garatzea (20.000 euro) eta EUDELen egoitzan egindako lanen ondorioz bizilagunei eman beharreko balizko kalte-ordainak (9.000 euro).

Bilbon, 2020ko urriaren 21ean.

ERANSKINA

EUDEL-ASOCIACION DE MUNICIPIOS VASCOS

2021KO AURREKONTU-PROIEKTUA SARREREN EGOERA

EUROTAN

SAILKAPEN EKONOMIKOA	AZALPENA	HASIERAKO AURREIKUSPENAK, 2020	HASIERAKO AURREIKUSPENAK, 2021	2020-2021 arteko aldea (%)
		2.784.983,80	2.991.680,36	% 7,42

3		TASAK ETA BESTE SARRERA BATZUK	17.236,00	12.100,00	-% 29,80
	399	Beste hainbat sarrera	17.236,00	12.100,00	-% 29,80
	39901	Jardunaldien ondoriozko sarrerak	14.736,00	9.600,00	-%34,85
	39902	Beste sarrera batzuk	2.500,00	2.500,00	% 0,00

4		TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	2.711.675,92	2.923.513,48	% 7,81
	41	Euskal Autonomia Erkidegokoak	2.696.675,92	2.923.513,48	% 8,41
	410	Administrazio orokorra	377.800,00	277.800,00	-% 26,47
	41001	Berdinsarea-Berdinbidean sarea. Emakunde	84.800,00	84.800,00	% 0,00
	41002	Euskara hitzarmena. Eusko Jaurilaritza	28.000,00	28.000,00	% 0,00
	41003	TBA (Herrismartik). Eusko Jaurilaritza	110.000,00	110.000,00	% 0,00
	41004	Etorkinen itzulp. hitzarmena Eusko Jaurilaritza	55.000,00	55.000,00	% 0,00
	41005	Helb. sust. dirulag. ETEL (EJ)	100.000,00	0,00	-% 100,00
	416	Foru-aldundiak eta beste foru- erakunde batzuk	2.008.886,96	2.335.771,47	% 16,27
	41601	Araba. Zerga itunduen partaidetza	265.650,61	305.735,18	% 15,09
	41602	Bizkaia. Zerga itunduen partaidetza	1.082.270,47	1.283.129,71	% 18,56
	41603	Gipuzkoa. Zerga itunduen partaidetza	660.965,88	746.906,58	% 13,00
	417	Tokiko erakundeak	309.988,96	309.942,01	-% 0,02
	41701	Eudelen bazkideen kuotak	289.988,96	291.792,01	% 0,62
	41702	Gobernantza proiekturako ekarpenak	20.000,00	18.150,00	-% 9,25
	49	Kanpokoak	15.000,00	0,00	-% 100,00
	490	Kanpokoak	15.000,00	0,00	-% 100,00
	49000	Europako Kontseiluarenak	15.000,00	0,00	-%100,00

5			ONDARE ARLOKO SARRERAK	56.071,88	56.066,88	-% 0,01
	54		Ondasun higiezin errentak	56.066,88	56.066,88	% 0,00
		540	Hiri-finken errentamendua	56.066,88	56.066,88	% 0,00
		540	Hiri-finken errentamenduak	56.066,88	56.066,88	% 0,00
	59		Ondare arloko beste sarrera batzuk	5,00	0,00	-% 100,00
		591	Bankuko kontuen interesak	5,00	0,00	-% 100,00
		591	Bankuko kontuen interesak	5,00	0,00	-% 100,00

EUDEL-ASOCIACION DE MUNICIPIOS VASCOS

**2021KO AURREKONTU-PROIEKTUA
GASTUEN EGOERA**

EUROTAN

SAILKAPEN EKONOMIKOA	AZALPENA	HASIERAKO AURREKUSPENAK, 2020	HASIERAKO AURREKUSPENAK, 2021	2020-2021 arteko aldea (%)
		2.784.983,80	2.991.680,36	% 7,42

1		PERTSONAL-GASTUAK	1.446.005,06	1.482.616,30	% 2,53
	11	Behin-behineko langileak	61.670,96	62.139,30	% 0,76
	110	Behin-behineko langileen ordainsariak	61.670,96	62.139,30	% 0,76
	13	Lan-kontratudun langileak	1.081.028,16	1.085.810,28	% 0,44
	130	Lan-kontratudun langile finkoen ordainsariak	1.081.028,16	1.085.810,28	% 0,44
	16	Enplegatzailearen konturako kuotak, prestazioak eta gizarte-gastuak	303.305,94	334.666,72	% 10,34
	160	Gizarte-kuotak	295.260,44	317.156,06	% 7,42
	16001	Gizarte Segurantza	266.650,93	286.382,90	% 7,40
	16004	Elkarkidetza kuotak	28.609,51	30.773,16	% 7,56
	163	Lan-kontratudun langileen gizarte-gastuak	8.045,50	17.510,66	% 117,65
	16301	Langileen prestakuntza	0,00	8.000,00	% 100,00
	16305	Bizi- eta istripu-aseguruak	8.045,50	9.510,66	% 18,21

2		ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN EROSKETA	778.102,40	939.969,26	% 20,80
	20	Errentamenduak	6.250,60	8.261,00	% 32,16
	201	Eraikinak eta beste eraikuntza batzuk	2.250,60	2.261,00	% 0,46
	20101	Aparkalekuen errentamenduak	2.250,60	2.261,00	% 0,46
	203	Garraio-materiala	4.000,00	6.000,00	% 50,00
	20301	Garraio-elem. errentamendua	4.000,00	6.000,00	% 50,00
	21	Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa	6.790,80	3.000,00	-%55,82
	214	Altzarien konponketak	5.000,00	3.000,00	-% 40,00
	215	Ekipamendu informatikoen mantentze-lanak	1.790,80	0,00	-% 100,00
	22	Materiala, hornidura eta beste batzuk	745.177,20	903.708,26	% 21,27
	220	Bulegoko materiala	13.742,57	14.020,00	% 2,02
	22001	Bulegoko materiala	10.231,02	10.500,00	% 2,63
	22002	Prentsa, aldizkariak, liburuak eta beste argitalpen batzuk	3.000,00	3.000,00	% 0,00
	22003	Material informatiko inbentaria-ezina	511,55	520,00	% 1,65
	221	Hornidurak	22.800,00	16.800,00	-% 26,32
	22101	Argindar-hornidurak	16.000,00	16.000,00	% 0,00

	22102	Ur-hornidura	800,00	800,00	% 0,00
	22103	Gas-hornidura	6.000,00	0,00	-% 100,00
	222	Komunikazioak	34.207,92	34.250,00	% 0,12
	22201	Telefono-komunikazioak	25.000,00	25.000,00	% 0,00
	22202	Posta-komunikazioak	9.207,92	9.250,00	% 0,46
	224	Eraikinen aseguruaren primak	3.110,00	3.300,00	% 6,11
	225	Tributuak	4.092,41	3.500,00	-%14,48
	226	Askotariko gastuak	173.380,50	82.312,00	-% 52,53
	22602	Protokoloko eta ordezkartzako beharrak	1.000,00	1.000,00	% 0,00
	22603	Publizitatea eta komunikazioa	41.380,50	48.312,00	% 16,75
	2260301	Publizitatea eta propaganda	1.000,00	1.000,00	% 0,00
	2260302	Prentsa eta komunikazio zerbitzua	17.805,50	22.312,00	% 25,31
	2260303	UDALA aldiakaria	12.500,00	12.500,00	% 0,00
	2260304	Argitalpenak	1.000,00	3.000,00	% 200,00
	2260305	Webgunearen mantentze-lanak	9.075,00	9.500,00	% 4,68
	22604	Defentsa juridikoa	6.000,00	6.000,00	% 0,00
	22605	Bilkurak eta hitzaldiak	8.000,00	10.000,00	% 25,00
	22607	Askotariko gastuak	1.000,00	1.000,00	% 0,00
	22608	IETELen helburuak bultzatzea	100.000,00	0,00	-% 100,00
	22609	Funts bibliografikoak	16.000,00	16.000,00	% 0,00
	227	Kanpoko beste enpresek egindako lanak	164.343,79	388.376,26	% 136,32
	22701	Garbiketa-enpresen lanak	39.381,56	39.400,00	% 0,05
	22707	Azterketak eta lan teknikoak	40.000,00	231.479,41	% 478,70
	22710	Posta-zerbitzuak	1.200,00	2.000,00	% 66,67
	22711	Programa informatikoen mantentze-lanak	19.800,00	26.696,85	% 34,83
	22712	Jardunaldiak eta mintegiak	1.000,00	6.000,00	% 500,00
	22713	Jabekideen erkidegoko kuotak	31.557,03	32.800,00	% 3,94
	22714	Barneko Euskara Plana	7.405,20	5.000,00	-% 32,48
	22715	Kanpoko beste enpresek egindako lanak	10.000,00	10.000,00	% 0,00
	22716	Itzulpen-zerbitzuak	14.000,00	15.000,00	% 7,14
	22718	Berdintasun-plana	0,00	20.000,00	% 100,00
	228	Proiektuak eta programak	329.500,00	361.150,00	% 9,61
	22801	Udalerrir txikien dirulag. jarraip. (INFOUDALA)	20.000,00	14.000,00	-% 30,00
	22802	Toki Zuzenbideko Euskal Mintegia	16.000,00	16.000,00	% 0,00
	22804	Prestakuntza- lagun egiteko programak	10.050,00	10.050,00	% 0,00
	22805	Buruzagitza prestakuntza	7.650,00	7.650,00	% 0,00
	22806	Europako proiektuak	35.000,00	18.150,00	-% 48,14
	22807	Berdintasuna, Berdinsarea	52.400,00	52.400,00	% 0,00
	22808	Berdintasuna, Berdinbidean	50.400,00	50.400,00	% 0,00
	22809	Euskera EUDEL	33.000,00	32.500,00	-% 1,52
	22810	TBA (Herrismartik)	55.000,00	110.000,00	% 100,00
	22811	Etorkinentzako itzulpen-zerb.	50.000,00	50.000,00	% 0,00
23		Zerbitzuagatiko kalte-ordaina	19.883,80	25.000,00	% 25,73

	230	Dietak, langileen lokom. eta joan-etorriak	12.383,80	15.000,00	% 21,13
	231	Dietak, goi-karguen lokom. eta joan-etorriak	7.500,00	10.000,00	% 33,33

3		GASTU FINANTZARIOAK	15.691,61	14.177,34	-% 9,65
	33	Epe luzerako maileguak	15.691,61	14.177,34	-% 9,65
	331	Epe luzerako maileguen interesak	15.691,61	14.177,34	-% 9,65

4		TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	11.284,00	110.253,20	% 877,08
	42	Lurralde historikoari	0,00	87.919,20	% 100,00
	420	Foru aldundiari eta bestelako foru erakundeei	0,00	87.919,20	% 100,00
	42001	Udalkutxa aurrelikidazio negatiboa 2020	0,00	87.919,20	% 100,00
	48	Fam. eta irabaz asmorik gabeko erakundeei	11.284,00	22.334,00	% 97,93
	481	Irabaz asmorik gabeko erakundeei	11.284,00	22.334,00	% 97,93
	48101	Hitzarmena, FEMP	7.067,00	7.067,00	% 0,00
	48102	Hitzarmena, EUSKALTZAINDIA	3.950,00	15.000,00	% 279,75
	48103	Hitzarmena, EUSKALIT	267,00	267,00	% 0,00

6		INBERTSIO ERREALAK	141.228,03	50.000,00	-% 64,60
	62	Zerbitzuen funtzionamendu operatiboarekin zerikusia duen inbertsioa	129.228,03	30.000,00	-% 76,79
	622	Eraikinak eta beste eraikuntzak	112.228,03	9.000,00	-%91,98
	622.02	Beste eraikinak eta eraikuntzak	112.228,03	9.000,00	-%91,98
	625	Altzariak eta tresnak	17.000,00	11.000,00	-% 35,29
	62501	Altzariak	1.000,00	1.000,00	% 0,00
	62502	Bulegoko ekipak	16.000,00	10.000,00	-% 37,50
	626	Informazioa prozesatzeko ekipak	0,00	10.000,00	% 100,00
	64	Inbertsio immaterialen gastuak	12.000,00	20.000,00	% 66,67
	644	Aplikazio informatikoetako gastuak	12.000,00	20.000,00	% 66,67
	64401	Inbertsioak programak	12.000,00	20.000,00	% 66,67

9		PASIBO FINANTZARIOAK	392.672,71	394.664,26	% 0,51
	93	Epe luzerako maileguen amortizazioa	392.672,71	394.664,26	% 0,51
	931	Kanpokoak, Sektore Publikotik kanpokoak	392.672,71	394.664,26	% 0,51
	93101	Epe luzerako ondarearen amort. Colon de Larreategi	149.009,61	149.547,30	% 0,36
	93102	Epe luzerako ondarearen amort. Ercilla	243.663,10	245.116,96	% 0,60

Batzorde Eragileak 2020ko urriaren 22ko bilkuran onetsitako proiektua.

AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUAK - 2021

1. artikulua.- Aurrekontua gauzatzeko arau hauek 2021eko ekitaldirako onarturiko aurrekontuaren indarraldi bera dute.

Hurrengo ekitaldiaren hasieran ez badira onartu ekitaldi horri dagozkion aurrekontuak, aurreko ekitaldikoak automatikoki luzatutzat joko dira, hasierako kredituekin. Kasu horretan, arau hauek ere indarrean jarraituko dute, luzapena dirauen aldian.

2. artikulua.- Lotura juridikoa, gastuen sailkapen ekonomikoan, kapitulu-mailakoa izango da; eta gastuen programakako sailkapenean, bestalde, gastu-arloaren mailakoa. Nolanahi ere, bermatu beharko da 1. kapituluari ("Pertsonal-gastuak") dagozkion gastu arruntek behar besteko aurrekontu-aurreikuspena izan dezaten.

3. artikulua.- Aurreko kapituluan ezarritakoagatik ere, kontabilitate-kontrola dagokion kontu-sailaren gainean egingo da

4. artikulua.- Etorkizuneko ekitaldietarako kreditua konprometitu ahalko da, baldin eta uneko ekitaldian edo hurrengoan hasten bada gauzatzen, eta etorkizuneko ekitaldi bakoitzerako zenbateko metatuak ez badu gainditzen eragiketa arruntengatiko baliabideen %25. Baliabide horiek likidatutako azken ekitalditik ondorioztatuko dira. Konpromiso-kredituek kanpoko finantzaketa baldin badute, ez dira gastutzat kontatuko, muga horren ondorioetarako.

5. artikulua.- Eskuraketetan eta obren, zerbitzuen edo horniduren kontratazioetan, ekitaldi batean baino gehiagotan ordaindu beharreko ordainketa geroratua dutenean, aurreko 4. artikuluan konpromiso-kredituei buruz ezarritakoa bete beharko da.

6. artikulua.- Gastuen egoera-orrian kreditua sortuko da pertsona fisiko edo juridikoen ekarpenetatik edo ekarpen-konpromiso irmoetatik datozen sarreraren ondorioz, gastu jakin batzuei lotuta daudenean.

7. artikulua.- Lotura juridikoaren maila gainditzen duen gastu bat egin behar denean, aurreko ekitaldiko gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren zenbateko berean gehituta, hala gertatzen denean, beharrezkoa izango da Batzorde Eragilearen erabakia.

8. artikulua.- Gastu-esleipenari dagokionez, kontuan hartuko dira ondorengo arauak:

- Elkartearen Zuzendaritza Nagusiaren eskumena da, zenbatekoa 35.000 eurotik beherakoa denean (BEZ barne hartu gabe).
- Elkartearen Elkarteburuaren eskumena da, zenbatekoa 35.000 eurokoa edo handiagoa denean eta 100.000 euro gainditzen ez duenean (zenbateko bietan BEZ barne hartu gabe).
- Batzorde Eragilearen eskumena da, zenbatekoa 100.000 eurotik gorakoa denean (BEZ barne hartu gabe).

9. artikulua.- Gauzatzeko arau hauei jarraituz aurrekontuari egiten zaizkion aldaketa guztien berri emango zaie Elkarte honetako kide diren udalei.

10. artikulua.- Ordainketak arau hauek betez egingo dira:

Funtsak Zuzendaritza Nagusiaren eta horretarako gaitutako Diruzaintzako arduradunen sinadura mankomunatuarekin erabiliko dira, eta lau sinadura mankomunatuetatik bi zango dira beharrezkoak.